

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAGIKETAK ESKUZKO ZULAKETA-EKIPAMENDUAREKIN	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0771		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lehergai bidezko lurpeko indusketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Lurpeko zulaketa	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Jumbo bidezko zulaketa.		90
	Eragiketak zulagailu birakari pneumatikoekin edo elektrohidraulikoekin		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0417_2 LURPEKO ZULAKETA EGITEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Zulaketa-eskema interpretatzea, zulaketa modu ezin hobean egiteko, datuak eta erabilitako sinbologia identifikatuz.
- E1.1 Zulaketa-eskema orokorra azaltzea.
 - E1.2 Lurpeko leherketetarako zulaketa-eskema azaltzea.
 - E1.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean: zulaketaren norabide egokia ezartzea, planoak eta datu topografikoak interpretatuz.
- A2: Eskuzko zulaketa-ekipamenduarekin lan egitea, zulaketa-eskemen eta ekipamenduaren funtzionamendurako eskuliburuaren arabera.
- E12.1 Zulaketa-ekipamenduaren elementuak eta horien funtzioa identifikatzea, ekipamendu zulatzailearen muntaia eta funtzionamendua azalduz, ekipamenduaren dokumentazio teknikoaren arabera.
 - E12.2 Ekipamenduaren kokapenak eta orientazioak, ekipamenduaren funtzionalitatearen arabera, izan behar dituen ezaugarriak ezartzea.
 - E12.3 Ur-sareen eta energia-sareen eta instalazioaren konexioen erabilgarritasuna ezagutzea.
 - E12.4 Zulaketa-ahok eta hagaxka-multzoa bereiztea, ezaugarriak kontuan hartuta eta lur-motaren arabera egokienak hautatzeko.
 - E12.5 Eskuzko zulaketa-ekipamenduarekin lan egiteko prozedura deskribatzea, fabrikatzailearen funtzionamendurako eskuliburuaren arabera.
 - E12.6 Ekipamenduaren lehen mailako mantentze-eragiketak eta konexio-elementuak deskribatzea zulaketa gauzatu bitartean funtzionamendu egokia bermatzeko eta matxurak saihesteko.
 - E12.7 Eskuzko ekipamendu bidez gauzaturako zulaketaren arrisku espezifikoenen prebentzio-neurriak zerrendatzea: atmosfera, arroken erorketa, zarata eta hautsa.
 - E12.8 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean, honako lan hauek egin behar dira:
 - Zulaketa-aho eta hagaxka-multzo egokiak hautatzea lur-motaren eta laneko argibideen arabera.
 - Mahuketa eta ur- eta energia-sareekiko konexioak eta ekipamendu zulatzailearekiko konexioak egitea, baita kasuan kasu beharrezkoak diren konponketak ere.
 - Zulaketa-ekipamendua kokatzea eta orientatzea, barrena-zuloak sarreran jartzeko zulaketa-eskemaren arabera.
 - Zulaketa egitea, ur-emaria eta bultzada erregulatuz, buxadurarik ez izateko, zulaketa-abiadura ezin hobea izateko, barrena-zuloetan narriadurarik ez izateko eta hauts-emisioa ahalik eta txikiena izateko.
 - Lehen mailako mantentze-eragiketak egitea.
 - Eskuzko zulaketarako ezarritako prebentzio-neurriak aplikatzea.
 - Zulaketa-jardueretarako norbera babesteko egokiak diren ekipamenduak erabiltzea.
- A3: Nolabaiteko autonomia -dagokion mailan eta dauzkan erantzukizunen esparruan- erakustea, bere profesionaltasunarekin lotutako gorabeherak konpontzeko garaian.
- E13.1 Dagokion lanpostuari atxikitako erantzukizunak identifikatzea, eta jarrera arduratsua izatea ekipamenduen, makinaren eta instalazioen maneian eta mantentze-lanetan.
 - E13.2 Dagozkion zereginak antolatzea eta planifikatzea, dagokion mailan eta dagozkion eskumenen eremuan, eta jasotako argibide teknikoan esparruan.
 - E13.3 Dagozkion lan-ekipamenduetan integratzea, bere lana taldeko lanarekin koordinatuz, ezarritako helburuak lortzeko.

EI3.4 Arazoak konpontzea eta banakako erabakiak hartzea, teknikoak nahiz antolamenduzkoak, betiere ezarritako arauen edo definitutako prozeduren esparruan.

EI3.5 Autoebaluatzeko gaitasuna, eta, hala badagokio, egindako lana zuzentzeko gaitasuna erakustea.

Edukiak:

1. Zulaketako eskuzko ekipamenduaren funtzionamendu-printzipioak, elementuak eta osagaiak.

- Zulaketako organo mekanikoen, oleohidraulikoen eta pneumatikoen funtzionamendu-printzipioak.
- Ekipamenduaren elementuak eta muntaia.
- Ekipamenduaren funtzionamendurako eskuliburua eta prozedura operatiboa.
- Aire- eta ur-mahukak: mahuken loturak, akoplamenduak, eta mahukak konpontzeko prozedurak.
- Ginbalet-motak eta zulaketa-aho motak.
- Eskuzko ekipamendu bidezko zulaketaren lanpostuak dituen arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-neurriak.

2. Eskuzko ekipamendu bidezko zulaketarako prozedura.

- Zulaketa-aho eta hagaxka-multzo egokiak hautatzea lur-motaren eta laneko argibideen arabera.
- Mahuken eta ur- eta energia-sareekiko konexioak eta ekipamendu zulatzailearekiko konexioak, baita kasuan kasu beharrezkoak diren konponketak ere.
- Zulaketa-ekipamendua kokatzea eta orientatzea, barrena-zuloak sarreran jartzeko zulaketa-eskemaren arabera.
- Ur-emia eta bultzada erregulatzea zulaketa gauzatu bitartean, buxadurarik ez izateko, zulaketa-abiadura ezin hobean gauzatzeko, barrena-zuloetan narriadurarik ez izateko eta ahalik eta hauts-emisio txikiena izateko.
- Lehen mailako mantentze-lanak egitea fabrikatzailearen eskuliburuaren arabera. Koipeztatzearen oinarriko printzipioak. Egin beharreko eragiketak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0770 Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko lurpeko indusketak